



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko irailaren 25a

78. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Renfe premiatzen dira Altaria trenea Altsasun gelditu dadin. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretuak eta ebazpenak Euskarari buruzko Legeko 8. artikuluan xedatuari egokitu dakizkion. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoko istripuei aurrea hartzeko zenbait jarduketa abiaraz ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu euskal presoei buruz Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuari eginiko eskaerak. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako bigarren osasun planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, legionella agerpenari eta hoztorreei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, Tafallan IAT bat instalatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzak eragindako gastu osoa bere gain hartzeak ekarriko lukeen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak I eredia ezartzera bideratzen dituen baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Aralar parlamentu-taldeak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, zuzenketa gehiagorik aurkeztu ez denez, Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua zuzenean Osoko Bilkuran tramitatuko da.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Renfe premiatzen dira Altaria trena Altsasun gelditu dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Espainiako Gobernua eta Renfe premiatzen dira Altaria trena Altsasun gelditu dadin". Aipatu mozioa 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Renfe premiatzen dira Altaria trena Altsasun gelditu dadin

1. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta Renfe tren operadorea premiatzen ditu egunero Altsasutik iragan eta Madrilerara doan Altaria trenak herri horretan merkataritza geraldibat egin dezan, Sakanako biztanleei zerbitzua emateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta Renfe tren operadorea premiatzen ditu Tuteratik iragaten diren Altaria tren guztiek herri horretan merkataritza geraldibat egin dezaten eta Tafallan geraldibat gehiago egin ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta Renfe tren operadorea premiatzen ditu Nafarroako herritarrek behar adinako tren zerbitzuak eta kalitatezkoak izan ditzaten.

4. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta Renfe tren operadorea premiatzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren iritzia, Nafarroako Gobernuaren bitartez adierazten dena, kontuan har dezan, foru erkidegoko tren zerbitzuak modu egokian diseinatzeko, gizartearen eskakizunak kontuan hartuta, eta tren bidezko garraio publikoa sustatzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan." Aipatu mozioa 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako administrazio publikoek sortzen duten dokumentazio guztian hizkuntza ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan, eta positiboki baloratu edo puntuatu ditzan hizkuntza hori erabili nahi duten pertsonak edo entitateak Nafarroako administrazio publikoek eginko deialdi publikoetan.

Erabakia. Horren bidez, CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen ditu CIAk Espainiak egiten dituen legez kanpoko jar-

erak, bereziki "entrega bereziak" deitzen direnen esparruan gauzaturiko aire-operazioekin zerikusia dutenak. Nafarroako Parlamentuaren aburuz, jarduera horiei amaiera eman behar zaie.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari exijitzen dio CIAk Espainiako lurraldean eginiko legez kanpoko operazioei buruzko informazioa argitara dezan, eta guztiz lagun ditzan Europako Parlamentuan eta Europako Kontseiluko Parlamentu-biltzarrean eraturiko ikerketa batzordeen lanak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ahal den zehaztasun guztiarekin berrikusi eta gaurkotu ditzan hegazkinen barrualdea kontrolatzeko eta ikuskatzeko prozedurak, bai eta joan-etorrien gainerako baldintzak ere, aire-nabigazioari buruzko nazioarteko legeak betetzen direla bermatzeko, eta, berariaz, Chicagoko 1994ko Konbentzioa, Espainiako lurraldeko hegaldi zibilei buruzkoa, halako moduan non atzerriko hegazkinen ezin izanen dituzten gure

aireportuak erabili jarduera ez-zibil edo legez kanpokoetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Espainia eta Iparramerikako Batzorde Iraunkorren dauden Defentsa eta Atzerri ministerioetako ordezkari espainiarrek areago zaindu ditzaten gure aire edo lur espazioan misio ofizialetan dabiltzan Estatu Batuetako hegazkinek hegaldiak edo eskalak egiteko alde aurretiko eta banakako baimenak, Espainiaren eta Amerikako Estatu Batuen Defentsarako 1988ko Lankidetzaz Hitzarmenaren 2002ko apirilaren 20ko zuzenketa protokoloa xedapenei jarraituz, eta azter dezaten aipatu protokoloaren deuseztapena sustatzea

komenigarria ote den, hegaldi ofizialen kontrolean halako laxatze bat gertatu zela uste baldin bada.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du debeka diezaien Espainiako aire espazioan eta aireportuetan sartzea CIAren enkarguz aireratzen diren eta ustezko terroristen legez kanpoko garraioko delitu-ekintzetan nahasturik egon omen direlako Europako Legebiltzarren eta Europako Kontseiluaren txostenetan agertzen diren hegazkinei.

6. Erabaki hau igorriko zaie Espainiako Gobernuko lehendakariari, Espainiako Atzerri Gaietarako Ministerioari eta Amerikako Estatu Batuek Espainiari duen enbaxadari.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan". Aipatu mozioa 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Corminekin (Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitea) hitzarmen bat sina dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezgaitasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten entitateentzako dirulaguntzen deialdietan entitate horien funtzionamenduari eta garatzen dituzten jarduera eta programei buruzko finantzaketa irizpideak ezar ditzan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretuak eta ebazpenak Euskarari buruzko Legeko 8. artikuluan xedatuari egokitu dakizkion.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretuak eta ebazpenak Euskarari buruzko Legeko 8. artikuluan xedatuari egokitu dakizkion".

Legebiltzarrak 2006ko irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoko istripuei aurrea hartzeko zenbait jarduketa abiaraz ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoko istripuei aurrea hartzeko zenbait jarduketa abiaraz ditzan".

Legebiltzarrak 2006ko irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu euskal presoei buruz Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuari eginiko eskaerak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu euskal presoei buruz Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuari eginiko eskaerak".

Legebiltzarrak 2006ko irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako bigarren osasun planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Nafarroako bigarren osasun planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Nafarroako bigarren osasun plana egin behar ote den jakiteko. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun prestaketa fasean dago Nafarroako lan osasunari buruzko II. plana.

Bere garaian, Nafarroako lan osasunari buruzko I. planaren ebaluazioa eta egoeraren diagnostiko

koa egin ziren, eta horretarako derrigorrezkoa zen Nafarroako osasunari eta lan baldintzei buruzko II. inkesta amaitzea. Horregatik, hasiera batean hausnarketa egin zen Nafarroako lan osasunaren behatoki bat eratzeari buruz, jadanik amaituriko lan osasunaren planaren jarraipen modura.

Geroago, eta Nafarroako osasunari eta lan baldintzei buruzko II. inkestaren emaitzak aztertu ondoren, beharrezkotzat jo zen planari jarraipena ematea, Nafarroako lan osasunaren II. planaren bitartez, zeinak jasoko bailuke aipaturiko behatokia.

Etorkizunean izanen den Nafarroako lan osasunaren behatokia Nafarroako lan osasunaren II. planeko ildo estrategikoetako bat da; horregatik, bete-betean dago orain aztertze- eta prestatze-fasean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, legionella agerpenari eta hoztorreei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak legionella agerpenari eta hoztorreei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du legionellarekin hoztorreek duten zerikusari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan guztira 623 hoztorre zeuden, 267 eraikinetan kokatuta. Legionelosiaren prebentzio eta kontrolerako irizpide higieniko eta sanitarioak ezartzen dituen uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretuak ezarritakoari lotuta zeuden dorre horiek.

Legionelosiaren lehenbiziko kasuei antzeman eta gero, aztergai gisa harturiko eremuan (Bigarren Zabalgunean, alegia) kokaturiko hoztorreen presazko ikuskapena egin zen. Test antigeniko azkar baten bitartez eginiko aurretiazko analisiak emaitza positiboa izan zuen lau dorrearen kasuan. Dorre horiek itxi egin ziren lehenbiziko kasuei antzeman zitzaienetik 24 ordu oraindik igaro ez

zirenean. Geroago, egin beharreko bakterio-hazketak egin ondoren, bakterioa bi dorretan zegoela egiaztatu zen, hasiera batean emaitza positiboa izan zuten beste bitan zegoenik baztertu zen, eta beste bi dorre gehitu zitzaizkion zerrendari. Azken bi horiek berehalakoan itxi ziren. Bakterio-azterketa osoa egin ondoren, eta Mikrobiologia Zentro Nazionaletik emaitzak jasota, ateratako ondorioa izan zen kutsaduraren jatorria Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuan kokaturiko hoztorrea zela.

Nafarroako Gobernuak abuztuan onartu zuen foru erkidegoan legionella kontrolatzeko araudi berria, ordura artekoa baino murriztaileagoa eta zorrotzagoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Galdera, Tafallan IAT bat instalatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafallan IAT bat instalatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Tafallan IAT bat instalatzeari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, IAT zerbitzua lau gunek ematen dute, Iruña, Noain, Azkoien eta Tuteran kokaturikoek. Azkoien instalazioa kontuan hartu gabe, esan daiteke banaketa horren xedea, argi eta garbi, biztanleria gunek garrantzitsuetako eskariari erantzutea dela.

Nafarroako Gobernuak, zerbitzua hobetzearen, gaur egungo saretik urrun dauden Nafarroako herriei zerbitzu emateko gunek berrien eraikuntza sustatu du eta, horrela, gure lurraldeko zati handi bateko nafarren lekualdatzeak murriztea lortu du.

Emakida-hartzaile diren enprekin sinaturiko akordio bat dela medio, gaur egungo gunek handitu egingen da, lau gunek berri eraikiz Lizarran, Altsasun, Zangozan eta Oronoz-Mugairin. Aurreikuspenen arabera, Lizarra eta Altsasuko gunek 2007. urtea bukatu aurretik egonen dira lanean, eta Zangoza eta Oronoz-Mugairikoak, berriz, 2009an.

Azaldu dugun bezala, gunek handituz lortu nahi dena da zerbitzua herritarri hurbiltzea; bereziki hartu dira aintzat IAT gunetatik urrun edo orografia zailak bereizirik dauden herrietako biztanleak, haien kasuan kokalekua delako azterketa teknikoak gainditu beharri gehitzen zaion zailtasun bat.

Tafallaren kasuan, IAT zerbitzua ematen zaio Azkoien eta Noaingunekun gunetatik, zeinak Tafallatik 25 eta 29 kilometroraino baitaude, hurrenez hurren. Horrela, Tafallako biztanleek bi IAT zerbitzu eskue-

ran dauzkate herritik 30 kilometro baino gutxiago-
ra. Zalantzarik gabe, kokaleku hori dela-eta, aise
irits daitezke IAT gunetara.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-
ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 1ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan
kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzak era- gindako gastu osoa bere gain hartzeak ekarriko lukeen kostuari buruz- koa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga
Ramirez Erro jaunak Nafarroako Gobernuak 0tik 3
urtera bitarteko hezkuntzak eragindako gastu
osoa bere gain hartzeak ekarriko lukeen kostuari
buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Dipu-
tazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari
Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera
2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamen-
tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru
parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafa-

rrako 0-3 urteetako hezkuntza eskaintzaren kos-
tuari eta finantziarioari buruzko galdera egin du.
Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzun-
a:

Urteko 138 milioi euroko kostua izanen luke,
gutxi gorabehera, Nafarroako Gobernuak bere
gain hartzeak 0-3 urte bitarteko umeak eskolatze-
ak sorturiko gastu guztiak.

2006an, Nafarroako Gobernuak 13.611.900
euro bideratu ditu 0-3 urteetako hezkuntzara.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Errege-
lamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan
xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Nafarroako Gobernuak I eredia ezartzera bideratzen dituen baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroako Gobernuak I eredia ezartzera bideratzen dituen baliabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak "I" eredia ezartzera bideratzen diren baliabideei buruzko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan, berez, ez dago "I" eredia izenekoak. Galdera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta British Council-ek egindako curriculum integratuko programa –gaztelaniaz eta ingelesez– irakasten duten ikastetxeei buruzkoa dela deritzogu; programa hori 2000ko apirilaren 5eko Ministro Aginduak

onetsi zuen eta 717/2005 Errege Dekretuan araututa dago.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ez du lerrorik ezta aparteko baliabide berariazkorik ere antolatu curriculum integratuko programa hispaniar-britaniar hori ezartzeko; izan ere, programa hori ezartzeko ezaugarriek programa pedagogikoari eta irakasleen profilari eragiten diete.

Hala ere, 2005-2006 ikasturteko lehen hiruhilekoan 2.200 euroko diru-ekarpena eman zitzaizen ondoko ikastetxeetako bakoitzari liburuak eta gelako materialak eros zitzaizten:

Cardenal Ilundáin ikastetxe publikoa

"Elvira España" ikastetxe publikoa

"Benjamín de Tudela" BHI

"Valle del Ebro" BHI

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

EZBEHARRA	ZENTROA	AZALPENA	Erreklamazioa	Ordaindutakoa, eurotan
1999ko abendua	Nafarroako Ospitalea	Kutsatzea	30.050	10.255
1999ko abendua	Nafarroako Ospitalea	Hiltzea	90.151	39.047
2001eko abuztua	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Kutsatzea	12.000	661
2001eko abuztua	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Hiltzea	330.557	185.000
2001eko abuztua	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Hiltzea	72.121	72.121
Abuztua	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Hiltzea	52.862	52.862
Abuztua	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Hiltzea	108.102	56.000
2001eko abuztua	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Kutsatzea	83.350	4.558
2001eko abuztua (*)	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Hiltzea	222.000	Ordaintzeke

(*) Erreklamazioa 2005eko azaroan aurkeztu zuen; aurretik, bide penaletik erreklamatu zen eta artxibatu zen.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak duen erantzukizun zibileko aseguruaren aseguru-etxeak, epai baten bidez, ordaindu ditu kalte-ordain guztiak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	---